AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4570

1281/2012 EBAZPENA, uztailaren 28koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, beste lanpostu bat beteko duelako, Juana Fernández Refoyo andreak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariorde izateari uzten diola aditzera ematen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 2ko 5286/2009 Ebazpenaren bidez, Juana Fernández Refoyo andrea Osakidetza-euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariorde izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU

Lehenengoa.– Juana Fernández Refoyo andrea, beste lanpostu bat beteko duelako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariorde postutik kentzea, egindako lana eskertuta.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2012ko irailaren 30etik aurrera izango du eragina.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteize, 2012ko irailaren 28a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.